ALDELARIAK

J. F. Kennedy'k amerikarrak pakearen alde jokatzera deitu zituan. Ta hona ere emazu zien: "PAKE ALDELARIAK". Erderaz "Voluntarios de la paz". Zertarako nai zituan Kennedy'k talde olek? Teknikan atzerapen tidi diran errialdeei laguntzeko. Borondate oneko jendea bildu nai zuen, erri atzeratuak esnatzeko ta aurrerapidean sar arazteko.

Gizonok zerbait nai dogunean, umeen antzera, istilluak sortu oi ditugu. Ez dago txarto, baiña kontuz ibilli bear. Gaur gure izkuntzaren egoera, euskera-kinka larrian, bere zoririk estuenean aurkitzen dala ikusirik, a ilterik gura ez dogunok, zarata pizkat ataraten ibiltsen gara sarritan. Ez dago txarto, ez, lotan dagozan asko itzartzeko bada be. Euskaldunok gaur, besteak beste, geure oitura, barren-arnasa, lege zar izkuntza ta gaiñantzeko ederrak zeatz samar albora itxirik, bizi-bezrrari lotuak gabiltz soil-soil. Ondoegi bizi gara: lana ugari, dirua oparo, aukeratasuna nun-nai. Olan, baiña, errezkerira jo oi dabe erriak; gu be ortan gogoz; geure-geure ditugun gauzarik asko zapuzturik, amil-beera goaz.

Ba-zan orduan be arduratik eza, ba-zan illuna. Kardaberatz'ek onela: «Gaberdi ilun batean ta arantzaz alde guztietatik beterikako bide batean bezala euskera ta euskaldunak zebiltzen». Graindik be agiri yakuz gaberdi illun orren itzalak, edo beintzat, arantzaz josiriko bide ez-ziurrez gabiltza aspaldi ontan. Ez dakigu, gaiñera, onez urtengo garean ala ez. Zahar eta gazteen arteko gudaldia dogu. Zaharrak alan be ba-dau bere jasa: atzo Durango'n euskal ye-ye ta gitarra-jotzailleak. Eta zer? Andra-Mari elizpeko jenteak beroenik txaloturikoz sur-kanta zahar bat izan zan.

Zaharren lana ezta ain erreza maxiatu bear: asko ikusi ta ikasiak dira, ta ikusiz ta ikasiz buruak jantzi oi ditugu, ta eurak diñoena ezta alperrik esana edo idatzia, euren jokabidea be ezta alperrikoa. Gaur Eleizan, esateako, kistar batzar onen gerua osatuten jardun dabenak, gehienak beintzat, naikoa zaharrak dira; errietako agintariak asko be, orrelaxe, urteetan aurreratuak, experientziz astunduak. Zaharrei, beraz, lotsea zor dautsegu. Guk, ostera, arlo onetan iskanbil geiegi atera dogu, idazle zahar ta gazteen artean bereziki: garbizale ta mordollokeri artean be bai. Kritika ondo dago. Baiña zelan egin? Or untzea! Gaurko gazteak zaharrak egin daben guztia beera bota nai dabe. Ez ei dabe ezer egin. Gazteak egiña ete dogu, beraz, munduko aurrerakuntza guztia? Bai, zera! Zaharren izerdiya dogu aurreratze ori; orain gazteak diranak, urteen buruz, beste zerbait geiago egingo dabe, ziurrik asko. Baiña oraiñartekoa zaharren izerdiykoa dogu. Nok jarri dau gure industri osoa? Geure egunetakoa dogu: gaiñera, gaur Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n lantegi ta fabrika ikaragarriak jarri dabezanak, lengo baserri ta bakartegi ixilletarik beera jarxitakoak dira.

Euskal arloan be zaharrak ditugu aurrelari, dagokioen bezala, naiz ta gazteak eztanka ta mazioka erruki bagean jardun. Lar erruki bagea askotan; lotsagarria da, askok eta askok diñoenez, gure gazteen jokabidea zaharrei buruz. Edozelan darabilgu geure luma ta astakeririk biribillenak esan oi ditugu igarri barik. Ez gara sarri ideien kritikan bakarrik lotzen, idazleak eurak be txibitxpean erabilten doguz; eta au giza-legetik kanpotikoa izan, eta onakoari lehenik eskatu bear dautsoguna gizarte-legea dogu, alkar maitasuna, bata-besteaganako erospena. Alkar izketa, gaur alkar izketa, autua bear da sail guztietan, ez bakoitzari burutik emoten dautsona parra-parra bota ta kitu; alkar izketarako baiño burrukarako gertuago gagoz, eta geure eritziko ez diranak etsai ta arerlotzat jotsen doguz, alkar aitutzeko era barik. Baiña alkar maitasuna dogu dana estali ta eder-kutsuz jarruntzen dauskuna. Gaitezan gizatiar.

Mundua aurrera doa, beti aurrera. Ta azken urteotan iñoiz baiño abiada aundiagoagaz. Gu ez gara gor abiada orri sostorrak jartzeko. Euskalerria be burdi orri lotua dos. Izkuntzari dagokionez be, bai? Orrela ba'jitz! Egia, lan ba-dakigu mordoxka batek beintzat. Ez dagigun mordoxka orri oztoporik ipiñi. Munduko izkuntza zaharren pizkunde-garaian gagozala esan daikegu, orsingo ofizialak baiño naikoa zaharrago diran izkuntzen pizkunde-garaian nunbait. Baita euskera zahar-zaharrerenean be. Ez ipiñi bere bidean oztoporik. Miretzat, naiz gazte naiz zahar, euskal arloan lan dagienak bardin dira, danak txalogarri. Benan'ek au esan ei eban apaizai buruz: «Amar urtean bizi izan naz apaiz artean, ta ez ditut ezagutu apaiz onak baiño». Asko irakurri dot, asko idatzi dot neure lozitzan, zahar eta gazte, ta neu baiño obeak aurkitu ditut danak. Bat bera be ez ezagarri. Auxe be rau iñoan Orixe zanak be.

Onek ezteu esan nai ona ta txarra bardintzeu irunteri bear dogunik. Gure bizerritarrak, laborea batzuan, galbeea erabilten dau gari ona ta txarra bereizteko. Guk beste orrenbeste egin daikegu. Baiña baturiko laborie mordoan, gizai asko, garia daukagu, ezetai bear eztana. Kritika egitean, beraz, irisle ona ta erdierkua danean beintzat, ba-daki garia ta ez txarra bereiztu ta banatzen, garia jaso ta zamarra itxen. Laborie artean gari-oleak lei, edozein idazlanetan ez ete dogu onik, euskal batzi ederrik? Eta itxi, arren gu esaten! zainbat iduru erjelek iduruarren orrialdeetan aurkitzen dan gari-tapirik be ez dauzku aitzen, eta ez-ezagar gillo galanta bat litzean agertzen dauzku iduru ausa. Kritikalari onek, ostera, ona ta txarra biok mendiu egitean jarri bear dauz; gari gorrizka eskumaxa ta zorrotzarik eskatzera.

Asken urteotan —asko ikatu— edozelako kritikak egin ditugu euskal iduruetan. Ba'talleka ezin onez irakin. Nora iaugarria ezta da beintzat. Gaur —ta noiz ez?— oste oker, susmo ta gibel-asmoz beterik bizi garai gaur kideko doguna txalo-joka izarretaraiño jasoten dogu, bestelakoa barriz lurraren erraiñaraiño amildu; oni intzentsu ugari ta betea eskintzen dautsegu; besbeari, askoz merezigarriago iznik be, ez dautsagu ezer eskiñiko; eguzkiari, naikoa dabelako edo, ez dautsagu olako lurrunik jaurtzen; bedar artean argi-urtika daukagun ipurtargiari, ostera, gau ta egun kadata-ontzi zaboka. Tamai andia, baiña, zur ibilli bearra daukagu gaur esanetan eta iduru-eritxietan. Guztiok dogu ikasi bearra, ta ontan batez be; ikasi bearra, bai, ikasi bear zundila. Ezjakiña goitu yaku, gaineko aulkia artu dausku izurri orrek, eta ez gabiltza ondo. Jantzi dalgu zan geure buruak.

Ideia guztiok batzar baten ondorenak ditruzu, irakurle. Oraindik oraintsu, batzeriño batean, eztabaida sortu zan euskal idazle zaharrak eta gazteak dirala-ta. Betiko leloa: zorioneko *h* ta zorioneko erdel-itzak erabilli bear gorria. Bai batak bai besteak naska sortu ei dau irakurleen artean, batez beerrian, naska ikaragarria. Mugaz andikoentzat ederki *h* ori, baiña emengoak zerrako erabilli, oso gaitz egiten badau bera irakurtzea? Aintziña baten, urte mordoak dirala. Euskaltzaindiak eta Euskalerriko lau Diputaziñoak erabagi ei eben euskaragaka. Ala orduko gizon pizutsu areik ez-jakiñak ete yakuzan? Gaurkoak areik baiño jakitunago ete? Et-ei! Garai artako gizon zentzundunak, sakon eta sustraiz, aztertu ta sakondu ebezan gai orretzako alderdiak oro, ta gaur azalegitik eta norkeri geiegiz gabiltz arein neurria jartsteko. Gaur, euskal erri mugaz emendiko ontan enkuesta bat eratuko ba'gendu *h* ori erabilli bear dogun ala ez jakiteko, eunetik larogeta bostek ezezkoa emon baletz. Beste izkunketan, euren izkera erreztu nairik dabiltza: espaiñarrak, esaterako, *h* barrabas ori kendu nai dabe, batez be ikasle gazteak; *h* ori be bai; Juan Ramón Jiménez olerkarik beti idatzi oi eban *j* ta iñoiz bere ez *g*: fujitivo. Eta gu, garai ontan, gauzak naspiltzen; zentzuna beti ondo.

Eta erdel-itzak? Loisagarria da, izan be, norbaitzuen idazkera: ez joskera alderditik begiratuta bakarrik, erdel-itz mordotik begiratuta be bai. *Dana*, gauza baten *izatea* ez ei dau erriak ulertzen, eta *errealitatea* esaten da; eta itz orrekin zer esan nai daben neuk be eztot aitzen sarri askotan; iñoiz egon naz olako pilosopokeri sakonen bat izango dalakotan. Eta *jenitu*, *bigundu*, *berotu* be ezabe ulertzen, eta *humanizatu* erabilli bear ei da. Onako gauzak esan eta idaztea astakeri utsa zala esaten eban norbaitek, aitzturiko batzarrean. Orrek gauzak, naiz-ta ulergaitzak izan, euskerari dagokion jaiez ta ganorez esan ezkero, errisk, eta ikastagoak be bai, obeto aituko doguz. Idatzi, beraz, ainbeste erdel-itz baga, euskeraz, tzukun eta egiaz. Erdel itza bear danean, edertu; baiña, gauza guztietan lez, erdiko bidetik ondoen.

Eta ortarako ikasi, esaten eban beste batek. Gaurko idazleak uste dabe lau itz ikasi —euskal editzea aberatu bikaiña dogu, baiña oian iragua— ta astaidako iduru zahar batzuk irakurri eskero, dena egiña dala. Bai zera! Zaharrok badogu orren ikusketa. Ekiñaren ekiñez egiten dira gauzak. Euskal erlijoi-solo zabala dogu, ta solo zabal baten jabe den basarritarrak badaizuu zelako teordi-paisaian lan egin bear izaten dauan, lurra iraili, zaia erein eta fruitua ertzeko. Bardintzu euskal alkuan be. Arzurkeda batzuk emonaz bakarrik es dogu ezer onik egingo: sakondu, zabaldu, zerrotu, tzukundu. Or idazlearen lana. Gure idazle zaharrek ba-dinoe; gazteek bear ditugu euskal zaiñean; lotsa orixe ta ugari gazte bigundeta euskaldunak, jakinzaleak, irunkorrak. Ondun izaitzeko dogu gure euskeraren lenaiza burez. Larramendiren esku, euskal keskal!

LARRAMENDI AITATUZ...

A. ONAINDIA

Ez gal ez aitatzen degun ezkero, gure galdera au da: Nun dira Euskal Irakasleak? Nun Unibersidade mailako ikasketak arretzemait? Nun Erdi-Irakaskintzakoak? Nun surren ikastoletakoak?

Gizatik atera bear ditugu, gure erria eskolatu ai jakintza bidetan aurrera eramateko. Olen artetik atera bear dira gai guztietan lotsagarri ez gaben Maixu egerta ditezkenak.

Gero arte, noiltxarrez, Unibersidaderik ezta gure artean izan. Gure aiu jakitez jateko Ikastetxe Nagusiak bear genituan, eta ontan zerbait ezkeal degu orte asetan. Baiña gaur arte, gure Unibersidadetzako ikasleak euki ditugu Euskalerritik kanpora. Valladolid, Madril, Zaragoza, Bartzelona ta nun ez? Gure gazte ikasleak Euskalerritik kanpora eman ditzate beren ikas-urteak.

Aren ordez bear ditugu, beraz, Euskalerriko "Aldelariak". Gure Jaunaren aitzin bear ditugu, beraz, Euskalerriko "Aldelariak". Gure Jaungoikoaren aitzin gazteak, aguri bear ditugu eskean. Erdi-Irakaskintzan dabiltzen gure jendea ere, sail ontarako egoki datorkigu. Maixu ta Maistrantzak ere, gure surren irakasle jatorrak eman bear dizkigute.

EUSKO ARGIA'k bere dei bizia egin nai die oiei guziei, betarik zabalen jakintza ta burua Euskalerriaren alde jarri dezaten, bendide eundiko gazteak; jakitez ongi jantziak; betoz ezkaz; betoz aut. Ta gure lana prestu eundikoa izan dedin, eskuak alkarri emanik ibi egin dezagun.

Gaiog alkartuta ere, neke ta lorrak izango ditugu lantide onetan. Eta gaiorren, beraz; setak alde batera utzita.

URRETXU

EUSKERA GIROA

ATARPE

Euskera giroa gure artean, berotzen, indartzen, zabaltzen doa. Zalantzik ez dago. Udazken zurbilla, udaberri argi txoperentzu biurtuko ote?

Lenago, aspaldiko oneta gogoak, gaur eginta pozgarri lagun zaizkigu. Batetik ikastola, iru urtetik setira bitarteko lagun ta anaie umetxoeri euskeraz irakoten hasteko geu ikastoletan eun da irurogei neska-mutil, geon da emakume, letatsu, Aitor'en izkuntza ongi dakiten. Eta ikotzean euskal-taletasun apur bat nagusi ezteik lan zoragarri oni eusten da laguntzen.

Aldiz, ikastetatako euskeraren utzerakeda ikaragarria, eta nabarmenak, kezkatzen asia dala ez al dirudi?

Ez lorinean geoko gaitzedia euskeraren galbideaz ikasten gerta ikusten asia da: Ta "izkuntza ederra, eri eunak ere normaikoa" ren iritzia bizian sakon bidean eri-etzian ekiten dia.

Ain ondo jarrik ereduetzat jartzeagatik ez gatoz batera, euskeraren galbideari jarraitzeak gizaldietan zear jarraitu. Eta len da orain, jokabide berdiña, batzuan bertze orbitatuko dogu. Ederrak ikasi eta ikasi bertzeak.

Gero, denbora batean Frantzi aldetik Garona ibar da Leyena aldetik Urtiaga, Errioja, Burgos eta Soria aldeetako bere mugaz zabalak eitzen izkuntza, geur ezin ukatu lekorututa ikusten dogu.

Bere aberetasunik ez jakitezgatik bakarrik euskeraz ezin dauan ledarra izan duan, ondo egirian daukagu. Ta gure ta gaztelago izango duala etsita egon ginenok, bide guztietan gizonaren egarririk bizienetako bat, euskera dala, esan ohatu bitake.

Irigaia bada ezkeron, baserriak euskera gordeko ezin dauskun geure buruak atzipetu? Arabia, Errioja, Nafarroa, ta abar eta abar... Ez al diran baserri? Ta berta-ezin gertatzen uri dana, ez al degu ikusten? Euskera baserriko erkuliaren dagoenean ezin bizi, beti kaerreko dala.

Jaungoikoaren irutasia ARRAMO MAKARIK ezin bezala "ikastolak, ikastolak" dautsez ezin bezala "ikastolak, ikastolak" bear dira gaur euskera ikasteko ta bertzeko". Eta irizki ontan gizon gizon bitzuek bateta datoz.

Ez dago bere onik da Euskerari jakintza bidez, ikastolak eta ikastolak eta ikastolak. Ez dago bere onik da Euskeraren aldeko ekintzak, ez dago bere onik da Euskeraren aldeko idazlanak. Bere buru jabe diran asaba zarrak egiten jakin etzuten lana.

Banan lan ori ekiteko euskera ezpanetan ez-ese, gogo biotzetan ere erabilli bearra dago. Españetan bakarrik dabillenak astuko du ziur asko. Gogo biotzetan tinkatuta daukanak, baldin bodaki azkuez eta ezpadaki ikasi. Orregatik Euzko-Gogo zarra zinatu ta biotzetaeuskera maitasuna zakontzen duan neurrian, orsingo egoerak sortzen dituan amaika eragerpen garaituaz, or da emen ikastolak ugaltzen dauz.

Euskaltzale urduri batzuen susardiari eta Alta Patriotarrak eman dituzten erresiasunori esker, Urretxu'n ere ikastola bikain bat iriki zaigu. Eta len esan bezala orsingoz larogei ta amar umetxo, iru urtetik setira bitartekoak, euskeraako ikaskotari ekin diote. Zelako edertasuna, ezta?

Orain euzkeltzale guztieri galderatzen bat: Etorkizunari begira, onek daukan garrantzia, bear bezla aintzat hartzen ote degu? Askok bai. Eta ikastola bere babesean daukan Anaidiko jakintza zalburen datari berzela eranztzen diote, beren laguntza eskeintaz. Banan au den-denon lana dala esagutzera iritxi bear gera, ta orduan denok laguntzalle izango gera, bakoitzaren laguntza apurtzoskin osiera itxuropenguerri unerri dagokion lerrainpena lortuaz.

Eta umetxoen ikastola porgarria ba-zaigu, gau ikaztaldietan Aitor'en izkuntza zarra gogotzu ikusten ustak diran eun da irurogei neska, mutil andra ta gizonetzaz zer esan? Ezikiekin asitako lan ederra osatzeko bearbearrezko zala. Umeak ez jakitearen errua azkatan aundiagotatik dator. Gaur umterri euskeraz, eta gurasuak elkarrekin erderaz egiteko ohitura aundia dago. Eta ori aizeko ankakin dena izurratzea ez al da? Umiak zer ikusi ura ikasi. Jarraikuerrak izan gaitezen bada. Eta erri izkuntza, ume izkuntza biurtu gabe, dakiguenak euskeraz bizi gaitezen ikasbidea emanez.

Jakin da ez egitea, Ama Euskeraarentzat ez jakitea badan iraingarriago gerta litzake, Euskera ez bedi erdegallu, bizitz ala bailik.

Euzko izmek adar bikoitza [illegible] arbitzen ge-ra. Izan edo ez izan. Bai ala [illegible] edo erderaz bizi. Eta zeme zinezu, benetako [illegible] gera. Ederaz jakin ezkero [illegible] kerez ez dakitenok [illegible]